

DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2017

KONTSUMOBIDE

- 1. Kontsumitzaileen elkarreentzako diru-laguntzen programa, funtzionamendu-gastuak, laguntza juridikoko gastuak, kontsumo-proiektuak egiteko gastuak eta berrikuntza teknologikoko proiektuak egiteko gastuak ordaintzeko 2
- 2. Toki-erakundeentzako eta horiek sustatzen dituzten erakundeentzako diru-laguntzen programa, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta interesak sustatzeari eta babesteari begirakoak 3



1.- Izenburua

Kontsumitzaileen elkarteentzako diru-laguntzen programa, funtzionamendu-gastuak, laguntza juridikoko gastuak, kontsumo-proiektuak egiteko gastuak eta berrikuntza teknologikoko proiektuak egiteko gastuak ordaintzeko

2.- Araua

EBAZPENA, 2016ko abenduaren 16koa, Kontsumobideko zuzendariarena (2016ko abenduaren 30eko EHAA, 248. zk.).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Kontsumitzaileen elkarteek dauzkaten funtzionamendu-gastuak, laguntza juridikoko gastuak, kontsumo-proiektuak egiteko gastuak eta berrikuntza teknologikoko proiektuak egiteko gastuak ordaintzeko xedea daukate laguntza hauek. Laguntzak jaso ahal izateko, kontsumitzaileak babestea eduki behar dute helburu bakartzat, Euskadiko Kontsumitzaileen Elkarteen Erroldan inskribatuta egon behar dute eta Euskal Autonomia Erkidego osoa hartu behar du beren jardueraremuak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017an, kontsumitzaileen hiru elkarteri esleitu zitzaizkien laguntzak, eta lan hauek egin dituzte:

- Kontsumitzaileen arreta: guztira, 4.825 kontsultari eman diete arreta, eta kontsumitzaileen 1.147 erreklamazio kudeatu dituzte.
- Laguntza juridikoa: laguntzaile juridikoek aurrez aurreko arreta eman diete kontsultei, kontsumitzaileen 100 demanda aurkeztu dituzte zenbateko gutxiagoko epaiketetan, eta 6 bukarazte-akzio aurkeztu dituzte.
- Kontsumo-proiektuak: ikerketak eta kontsumitzaileak informatzeko eta sentibilizatzeko ekintzak egin dituzte.
- Berrikuntza teknologikoko proiektuak: web-orrialdeak berritu dituzte.



1.- Izenburua

Toki-erakundeentzako eta horiek sustatzen dituzten erakundeentzako diru-laguntzen programa, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta interesak sustatzeari eta babesteari begirakoak

2.- Araua

AGINDUA, 2010eko otsailaren 17koa, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena (2010eko otsailaren 24ko EHAA, 37. zk.).

EBAZPENA, 2016ko abenduaren 16koa, Kontsumobideko zuzendariarena (2016ko abenduaren 30eko EHAA, 248. zk.).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Honako gastu hauek ordaintzea da laguntzen xedea: kontsumitzaileei informazioa emateko udal-bulegoetarako zentroen eta zerbitzuen instalazio-, birgaitze- eta ekipamendu-gastuak edo toki-aldaketarako gastuak, kontsumitzaileei informazioa emateko udal-bulegoetarako zentroen eta zerbitzuen funtzionamendu-gastuak, bulego horiek egiten dituzten askotariko prestakuntza- eta dibulgazio-jardueren gastuak eta kontsumo-ikuskapeneko jarduerak egiteko gastuak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017an, 37 erakunderi eman zaizkie laguntzak, kontsumitzaileei informazioa emateko udal-bulegoen funtzionamendu-gastuak ordaintzeko. Horri esker, bulego horiek kontsumitzaileen erreklamazioak eta kontsultak artatzea eta informazio- nahiz prestakuntza-jarduerak garatzea sustatu da.

Era berean, 7 erakunderi eman zaizkie laguntzak kontsumo-ikuskapeneko jarduerak garatu ditzaten. Jarduera horiekin, areagotu egin da merkatuan kontsumitzaileen eskura jartzen diren produktuen segurtasun-kontrola.

Bestalde, 3 erakunderi eman zaizkie laguntzak bulegoetako ekipamendua eta instalazioak hobetu ditzaten.